



IÑIGO MARTINEZ PEÑA  
FILOSOFOA

## Gorputzaren konkista

**G**orputzaren gaiak pisua hartu du egungo diskurtsoetan, era askotara agertzen zaigu. Hala ere, eztabaida berri samarrak dira: beste garai batzuekin alderatuta, gorputza nahiko baztertua egon da Mendebaldeko pentsamenduaren historian.


Niri, egia esan, lagungarria egiten zaizkit Jacques Lacan-ek erabilitako hiru terminoak gorputzaren gaiari aplikatzeko. Sinbolikoa, irudimenezkoa eta erreala. Hiru hari, gorputzera bide desberdinetatik hurbiltzeko, gaia sinplifikatu gabe. Askotan entzuten baitugu: “Ni nire gorputza naiz”. Baina nori buruz eta zer gorputzi buruz ari gara? Irudiari buruz? Organismoari buruz? Geure buruaz esaten dugunari buruz?

Har dezagun gorputza bere dimentsio sinbolikoan. Zertan datza? Presentziaren eta absentiaren arteko jolasean: badago eta ez dago. Gorpuarekin ere lotu dezakegu, hilerrian agertzen den izenarekin, harrian markatutako hitzekin: modu horretan presente egiten ditugu jada ez dauden gorputzak, haien absentsian sinbolo bat jarrita. Pentsa, adibidez, zer garrantzitsua den senide eta lagunentzat desagertutako pertsonen gorpuak topatzea! Zenbat buruhauste dakarren itsasoan galdutakoen gorpuak aurkitzeak memorian leku sinboliko bat izan dezaten. Beste dimentsio bat hartuta, irudimenezkoa ere bada gorputza. Irudi horretan

batu egiten dira gure gorputzaren atalak: besoak, hankak, belarriak, eskuak... Eta ez pentsa, ez da hain erraza gorputzaren zatiak batzea: jaioberri batek konexiorik gabeko gorputz pusketak baino ez dauka eta ispiluko irudiak gorputzari osotasuna ematen dio. Azkenik, gorputzak badu dimentsio erreala ere: organismoa bera. Bihotza taupadaka, giltzurrunak martxan gu ohartu gabe... Hor dago sinboloetatik eta irudietatik at garen haragi pusketak (edo pusketak). Gorputz erreal horri presentziaren misterioa gehitu diezaiokegu: ahotsaren tonua, egindako keinuak, tempusa, gauzak egiten jarritako pasioa... Sinbolizaziotik eta irudietatik kanpoko kontuak.

Horregatik, hitzen, irudien eta organoen arteko hariak asmatu behar izaten dira (aipatutako hiru dimentsioen arteko lokarriak). Gorputza gara, beraz, edo gorputza daukagu? Batzuetan zama baten moduan garraiatzen dugu, beste batzuetan estimulatuegi dago eta ezin da gel-dirik egon... “Biojakituriaren” bonbardaketa eta gorputza “entzuteko” aginduen garaian bizi gara, gorputzaren jaun eta jabe nahi dugu izan, gorputza konkistatu. Hala ere, matxinatu egiten zaigu! Gilles Lipovetsky-ren ustez, egungo hedonismo despolitizatuak gorputzaren oreka eta kontrola du helburu. Baina, esan bezala, noraino menperatu daitezke gorputzak? Ez gutziz, ez erabat. Eta, akaso, zorionez. ●

## Aireportuko anekdota bat



EVA PEREZ-PONS  
ANDRADE

**A**skotan nahastu izan nau kanpo begiradak mutiko nerabe batekin, hori ez da berria. Berria ez denez, grazia egitetik gogaitzera pasa izan nau. Berria ez denez, geroz eta erantzun epikoagoak botatzeko gaitasuna garatzen dut, egoeraren gaineko kontrola neureganatuz. Eta kontrola neureganatu dudanez, egoeraz disfrutatzen ikasi dut momentuan eta geroxeago.

Metro eta erdiko *butch*-a izatea auzi konplexua da, espazio eta denbora berean, gauza bat edo beste izan zaitzkeelako inguruan duzun jendearen arabera. Hona azalpena duela bi urte Loiuako aireportuan gertatu zitzaidan

anekdota batekin: lehenengo kontrolean, atzean nuen familia bateko ume batekin nahasi ninduen *seguratak*. Bigarrenean, lehergailuen kontrako “ausazko” bi kontrol (birritan egin behar izan nuen ur botila batekin sartu nintzelako) eta aireportu batean inoiz egin didaten miaketarik bortitzena egin zidaten, aurrean nuen *giri* ilehori txukunari egin ez ziotena.

Umoretik gogoratzen dut istorioa gaitetik pasa gabe zelan normatibitatearen eraginez tratatu bat edo beste jasotzen jarraitzen dugun aireportuan, kalean, supermerkatuan, garraio publikoan edo edozein lekutan. ●